

ERABAKIA, 2025KO OTSAILAREN 12KOA, TRANSFERENTZIA ETA NAZIONARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, 2025-2026 IKASTURTERAKO AVENIR- HELMUGA FRANTZIA- BIKAINTRASUN BEKEN HAMARGARREN EDIZIOAREN DEIALDIA EGITEKOA

Frantziak Espainian duen Enbaxadaren, DIALOGO espainiarren eta frantziarren arteko laguntasunerako elkartearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko esparru akordioa (2022an sinatu zuten eta 2024ko irailaren 2ko jakinarazpenaren bidez luzatua) sinatzen dutenek egin beharreko lankidetzak jardueren artean, Frantziako unibertsitatearen batera joango diren UPV/EHUko ikasleei mugikortasunerako bekak ematea dago.

AVENIR- Helmuga FRANTZIA- bikaintasun bekak izenpean, Frantziako Enbaxada, erakunde publiko eta pribatuekin sinatutako zenbait akordioaren bidez eta DIALOGOren laguntzarekin, urteroko deialdia koordinatzeaz arduratzen da. Deialdi horren bidez bekak ematen zaizkie ezarritako baldintzak betetzeaz gain, ezartzen diren irizpideen arabera, puntuaziorik altuena lortzen duten hautagaiei.

Aurrekoarekin bat, organikoaren konturako nahikoa kreditu dagoenez eta daukadan eskumenaren arabera, 2025-2026 ikasturterako AVENIR- helmuga FRANTZIA- bikaintasun beken hamargarren edizioaren deialdia argitaratzeko agintzen dut. Beka horiek honako hauen arabera antolatzen dira:

OINARRIAK

LEHENENGOA. - HARTZAILEAK

AVENIR- helmuga FRANTZIA- bikaintasun beken programa Espainiako nazionalitatea duten edo Espainian bizi eta Espainiako eta Frantziako nazionalitatea duten ikasleentzat da, baldin eta 2025-2026 ikasturtean Frantzian ikasten badute, dela banakako mugikortasunaren esparruan (gradu bat, master bat edo doktorego bat), dela Frantziako eta Espainiako titulazio bikoitz baten esparruan, dela Erasmus+ mugikortasunaren esparruan.

BIGARRENA. - HELBURUA

Deialdi honen helburua da 2025-2026 deialdian Bordeleko Unibertsitatean ikasteko Erasmus+ mugikortasuna lortu duten bi ikasleri MILA euroko (1.000.- €) mugikortasun beka bana ematea.

HIRUGARRENA. - PARTE HARTZEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK

2025-2026 deialdian Bordeleko Unibertsitatean ikasteko mugikortasuna esleitu zaizen ikasleek beketako bat eskuratzeko eskabide bat aurkeztu ahal izango dute, aldi berean bete beharko diren prozedura hauei jarraikiz:

1. Deialdi honi atxiki zaion eskaera (I. ERANSKINA) bete eta entregatu beharko dute 2025ko maiatzaren 5a baino lehen.

I. eranskina honela aurkeztuko da:

- Ahal dela **UPV/EHUren erregistro elektronikoen bidez**, <https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/index> URLan, eskaeraren "Helmuga" eremua hautatuta: **Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza, Nazioarteko Harremanen Bulegoa (U02000247)**. Horretarako, honako identifikazio elektronikoko sistema hauetakoren bat erabili beharko da: a) Izenperen erabiltzaile ziurtagiri digitala, b) UPV/EHUko unibertsitate txartela (Izenpe), c) NAN elektronikoa, edo d) FNMT-CERES Diruaren eta Zerga Ziguaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria.
 - Gainera, honela ere aurkeztu ahal izango da: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa, b) UPV/EHUko edo sektore publikoko beste edozein erakundetako erregistro arloko laguntza bulegoetan, gaitutako funtzionario publiko baten bidez, c) Posta bulegoetan (lehenengo orria posta bulegoak sinatuta duen gutun ziurtatua), eta d) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo kontsuletxeetako bulegoetan.
2. DIALOGO elkarteak <https://dialogo.es/formacion-becas/becas-avenir-destino-francia/> helbidean eskuragarri jarritako inprimakia 2024ko maiatzaren 5a baino lehen bete beharko dute.

Bigarren kasu horretan, eskatzaileak:

1. izena emateko online inprimakia bete beharko du.
2. Eskatutako ziurtagiriak adierazitako epeetan atxiki beharko ditu.
3. Hautagai onargarriek elkarriketa bat egin beharko dute.
4. DIALOGOren webgunea kontsultatu beharko du beken ebazpena ezagutzeko.

Ziurtatutako familia errenta DIALOGO elkarteak baloratuko du hautaketa prozesuan.

AVENIR beka behin betiko esleitzeko, ikasleak egiaztatu egin beharko du Frantziako goi mailako irakaskuntzako unibertsitate edo ikastegi batean onartu dutela.

Hautagai bakoitza arduratuko da onarpen gutuna 2025ko ekainaren 24a baino lehen aurkezteaz.

Era berean, hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, hautagaitza edo onarpen proba bat atxiki beharko da, AVENIR beken inprimakian eskatzen den bezala.

Osatu gabe dauden espedienteak ez dira aintzat hartuko hautaketa prozesuan.

Gainera, beketako baten onuradun den ikasleak derrigorrez inskribatuko beharko du, bere izenean, helmugako ikastegian.

Ikasleak kudeatutako du helmugako ikastegiko inskripzioa/matrikulazioa eta Frantziako ostatua.

LAUGARRENA.- EGUTEGIA

Honako hau da bi erakundeen (UPV/EHU eta DIALOGO elkartea) egutegi bateratua:

- I. **Otsailak 17:** izen-emateen irekiera.
- II. **Maiatzaren 5a:** izen-emateen itxiera.
- III. **Maiatzean eta ekainean zehar:** hautagaiak hautatzea.
- IV. **Ekainak 23:** Frantziako unibertsitate baten onarpen gutuna bidaltzeko azken eguna.
- V. **Uztailak 4:** hautatutako hautagaien izenak argitaratzea eta bekak emateko zeremonia.

Onuradunek nahitaez joan beharko dute bekak emateko ekitaldira.

BOSGARRENA.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

UPV/EHUren balorazio irizpidea merezimendu akademikoa izango da, eta, horretarako, aintzat hartuko da 2025-26 mugikortasun deialdiaren hautaketa egiten denean hautagai bakoitzak duen batez besteko nota.

Irizpide hori oinarritzat hartuta, honela esleituko da beka:

- a) Bi beketako bat esleitzean, Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen 2024ko urriaren 31ko Erabakian (2025-26 Erasmus+, LA-BN deialdia) adierazitako "aukera gutxiagoko" kolektiboetako hautagaiek izango dute lehentasuna.
- b) Plaza 2024ko irailaren 30ean batez besteko nota altuena duten eskatzaileei esleituko zaie. Ondorio horretarako, irakaskuntza teknikoetan lortutako batez besteko notak 1,17ko koefiziente zuzentzailearekin biderkatuko dira.
- c) Bajak edo uko egiteak badaude, eta betiere egutegiak horretarako aukera ematen badu, libre geratu diren plazak lehenengo unean esleipendun izan ez diren hautagaien artetik helmuga horretarako ondoz ondoko batez besteko notarik onena duten hautagaiei esleituko zaizkie.

DIALOGO elkarteari dagokionez, irizpideak izena emateko inprimakian eta haren webgunean (<https://dialogo.es/formacion-becas/becas-avenir-destino-francia/>) agertzen dira.

ZAZPIGARRENA. ERABAKIA

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskatzaileei banan-banan jakinaraziko zaie laguntza eman zaien ala ez, eskabidean adierazi duten helbide elektronikoa.

ZORTZIGARRENA. - IKASTURTEA ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Emaitzak argitaratu ondoren, bekak uztailaren lehenengo astean emango dira DIALOGO elkarteak horretarako antolatuko duen zeremonian.

BEDERATZIGARRENA. - HAUTATUKO PROIEKTUEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 91. artikuluan xedatutakoarekin bat, onuradunak helburu, jardura eta proiektu guzti-guztiak bete, dirulaguntza emateko oinarri izan diren jokabideak izan eta dirulaguntzaren harira hartutako konpromisoak bete beharko ditu. Osterantzean, dirulaguntza osorik edo zati batean itzuli beharko da, dirulaguntza arautzen duten oinarrietan ezarritako irizpideak aintzat hartuta. Ere berean, aintzat hartu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluan xedatutakoa.

Halaber, onuradunak plaza esleitu zitzaion mugikortasun deialdiko helburuak bete beharko ditu, besteak beste, honako hauek:

1. Mugikortasuneko ikasleak zehaztutako datan joan beharko du helmugako ikastegira. Agertu ezean, mugikortasunari uko egin diola ulertuko da.
2. Mugikortasuna hasi ondoren, borondatez bertan behera utzi nahi izanez gero, errektoreordeari jakinarazi beharko zaio GAUREn edo e-postaren bidez (movilidad.internacional@ehu.eus), egoera erregularizatzeko. Laguntzak ordaintzea eragin duen mugikortasuna jakinarazi gabe bertan behera utziz gero, fede txarrez egin dela ulertuko da. Nolanahi ere, mugikortasuna baimenik gabe bertan behera uzten duen ikasleak jasotako laguntzak itzuli beharko ditu.
3. Mugikortasunaren iraupena edo lauhilekoa aldatu nahi izanez gero, Nazioarteko Harremanen Bulegoak eta ikastegiko koordinatzaileek eskaera horren arrazoiak aztertu eta ikus-onetsi egin beharko dute, bai eta helmugako unibertsitateko programaren arduradunek ere.

Hala badagokio, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 94. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren bidez eskatuko da dirulaguntza itzultzeko.

HAMARGARRENA. - AURKARATZEKO MODUAK

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Hala ere, ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeari, hilabeteko epean, UPV/EHUren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Bilboko Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, UPV/EHUren webgune ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Leioan, 2025ko otsailaren 14an.

Sin. /Fdo. M. Gotzone Barandika Argoitia
TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE
ERREKTOREORDEA
VICERRECTORA DE TRANSFERENCIA E
INTERNACIONALIZACIÓN